



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2016ko MARTXOAREN 1ean EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2016ko martxoaren 1ean, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^o Aranzabe Urruzola
Onintza Gorostidi Murua
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Uxue Etxebeste Eizagirre
Xabier Mugika Letamendia

Bere ezin etorria azaltzen du: Koldobika Jauregi Zinkunegi

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.**
-2015eko urtarrilaren 26an egindako ohiko bilkuraren akta.
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. 2016 ekitaldirako udal aurrekonturen espedientearen hasierako onespena, hala bada.**
- 5. Alkizako Herri Eskolak eginiko diru-laguntza eskaera aztertu, hala bada.**
- 6. Belako publizitate eta komunikazioak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 7. J.A.G. jaunak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 8. Tolosaldeko Atariak aurkezturiko 2015eko ekitaldiko memoriaren onespena, hala bada.**
- 9. Tolosaldea Garatzenek eginiko eskaeraren azterketa, hau da, 2016 urteari dagokion ekarpenaren onespena, hala bada.**
- 10. Tolosako hiltegi mankomunatuari 2016ko ekarpenaren onespena, hala bada.**
- 11. EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarteak eginiko gomendioari atxikitzea, Udalhitz negoziazio kolektiboaren inguruan, hala bada.**
- 12. Aiztondo Klasikoa batzordearen eta Alkizako Udalaren arteko**



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

- lankidetzeta hitzarmenaren onespena, urtero egiten den txirrindularitza klasikoaren arauak finkatzeko.
13. XIII. Aiztondo Klasikoari "PATXI ALKORTA MEMORIALARI" 2016ko ekarpena burutzea, hala bada.
 14. Beste batzuk.
 15. Erregu, galdera eta mozioak.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA

- 2016ko urtarrilaren 26ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

02/2016 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 2koa, Hutsik dagoen Idazkari-kontuhartzaile postua betetzeko berarizko oinarriak onartzea, ebazten duena.

03/2016 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 1ekoa, Alkizako udaleko 2015 urteko bigarren goi-hilabeteko uraren tasaren udal errolda onartzea, ebazten duena.

04/2016 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 3koa, J.A.S. eta Ataria aroztegiari, Alkizako Herri Ostatuan hainbat lan egiteko esleipena ematea, ebazten duena.

HIRUGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

IBERDROLA	49,23
AUDAX	83,26
AUDAX	187,49
AUDAX	298,46
AUDAX	144,41



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

AUDAX	71,49
AUDAX	374,19
AUDAX	198,78
AUDAX	7,87
AUDAX	65,45
AUDAX	30,45
AUDAX	53,99
MOVISTAR	59,35
MOVISTAR	11,11
MOVISTAR	3,07
MOVISTAR	14,88
EUSKALTEL	68,18
ARGITU	156,50
REPSOL	149,23
REPSOL	166,35
REPSOL	8,37
REPSOL	253,29
REPSOL	40,73
BULEGOAK	91,84
AIZKIBEL	63,16
TOLOMENDI	152,50
ARGITU	213,73
EBA ERKIZIA	1.191,84
BIDATEK	2.008,13
CORREOS	6,86
ULAHI	526,35
SOLRED	43,97
CALPARSORO INDUSTRIAL	185,41
EUSKALTEL	63,55
AUDAX	471,98
DISTRIBIDORA GIPUZCOANA	220,00
IZADI	152,94
RECAMBIOS IBARRA	38,10
BIDATEK	471,90
EQUIPAMIENTOS DE OFICINA MINADO	438,24
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	314,29
MOVISTAR	76,50

MOVISTAR	57,04
----------	-------



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

MOVISTAR	67,22
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	543,32
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	942,25
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	539,90
ARGIA	145,00

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **11.522,15** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

2016 EKITALDIRAKO UDAL AURREKONTUAREN ESPEDIENTEAREN HASIERAKO ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari-kontuhartzaileak prestatu duen 2016 ekitaldirako udal aurrekontuaren aurreproiektuaren espedientea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak xedatutako moduan eta aurreikusitako eranskinekin. Ondorengo dokumentuekin osaturikoa:

- Alkizako Udaleko aurrekontua.
- Plantila organikoa eta Lanpostu zerrenda.
- Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak.
- Memoria.
- Txostenak.
- Eranskinak.

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari-Kontuhartzaileak 2016ko otsailaren 26an egindako txostenean dioena.

Gaia eztabaidatu ondoren bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Alkizako Udaleko 2016 urteko aurrekontu espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) behin-behingo onartzea 537.829,08 eurotako kantidadean. Horren desglosea kapituluetan honako hau izanik:

GASTUAK



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

I. Kap. Pertsonal-gastuak	154.935,00
II. Kap. Ondasun gastuak	121.550,00
III. Kap. Finantza gastuak	100,00
IV. Kap. Transferentzi arruntak	106.686,91
VI. Kap. Inbertsio errealak	154.557,17
VII. Kap. Kapital Transferentziak	0,00
IX. Kap. Pasibo finantziarioak	0,00
	537.829,08

GUZTIRA GASTUAK

SARRERAK

I. Kap. Zuzeneko zergak	54.800,00
II. Kap. Zeharkako zergak	5.000,00
III. Kap. Tasak eta bestelako sarrerak	52.015,00
IV. Kap. Transferentzia arruntak	304.281,00
V. Kap. Ondare-sarrerak	1.110,00
VI. Kap. Inbertsio errealak inorenganatzea	0,00
VII. Kap. Kapital-transferentziak	120.623,08
IX. Kap. Pasibo finantzierokak	0,00

GUZTIRA SARRERAK

537.829,08

BIGARRENA.- 2016ko aurrekontu espedientea bideratzeko izapidetzek aurrera eramatea.

HIRUGARRENA.- 2016 urterako Plantila Organikoan eta Lanpostu zerrendan egindako aldaketak onestea. Hau da, administrari laguntzaileari Udalhitz konbenioaren 11 nibeletik 13 nibelera igotzea, C2 Taldearen barruan, dagokionak baino funtzio gehiagoetara iristen delako.

LAUGARRENA.- Udal Aurrekontu Orokorren espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) 15 laneguneko epean jendaurrean jarriko da, interesatuek bidezko iritzitako errekurtso eta alegazioak tarteratzeko, horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Inongo erreklamaziorik gabe igarotzen bada epea, behin-betiko onartutzat joko da aipatutako dokumentua, beste akordiorik hartu gabe.

BOSTGARRENA.- Idazkari-kontuhartzaileak 2016ko otsailaren 2an egindako egonkortasun txostenean adierazitakoa onestea, non azaltzen den:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan Ogasun eta Finantza Departamenduak argitaratutako jarraibideak (2015eko azaroaren 25ean publikatua GAOan) dioena aplikatuz:

Gastuaren araua betetzen ez duten toki entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin beharko dute, urtebeteko epean egoera zuzendukok dela bermatuko duena.

Era berean, entitate batek gastuaren araua bete ez badu, baina 1/2013 Foru Arauaren 5.artikuluaren laugarren paragrafoan jasotako baldintza guztiak, aldi berean, betetzen baditu, plan ekonomiko-finantzarioaren ordeztu, paragrafo horrek aurreikusten duen komunikazioa aurkeztu diezaioke Udalbatzari.

Era berean, gastuaren araua bete ez duten entitateek, planaren ordeztu, komunikazio bat aurkeztu diezaioke Udalbatzarrari, Kontu hartzaileak sinatua, entitatearen iraunkortasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatuko duena, baldintza hauek guztiak betetzen badituzte:

- *2015eko aurrekontuaren likidazioan, edo horren ezean bere aurreikuspenean, diruzaintza gerakina eta aurrezki garbia positiboak izatea.*
- *2016erako defizit eta zor helburuak betetzea.*

Gauzak horrela, aurretik esandakoa betetetzearren komunikazioa aurkezten zaio Udalbatzarrari adieraziz:

- *2015eko aurrekontuaren likidazioan, edo horren ezean bere aurreikuspenean, diruzaintza gerakina eta aurrezki garbia positiboak direla.*
- *2016rako defizit eta zor helburuak betetzen direla.*

BOSTGARREN PUNTUA

ALKIZAKO HERRI ESKOLAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA AZTERTU, HALA BADA

Ikusirik Alkizako Herri Eskolak eginiko diru-laguntza eskaera, non ondorengo dioen:

“Gaia: Diru-laguntza eskaera



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Dakizuen bezala, Eusko Jaurlaritzak Hezkuntzari eskeinitako diru-iturriak murriztu zirenetik zenbat neurri hartu behar izan zituen Alkizako Eskolak (igeriketa bi urtez behin egitea, bus-garraio gastuak ahalik eta gehien gutxitzea...). Neurri hauen ondorioz egoera zertxobait hobetu den arren, ikasturte honetan igeriketa ikastaroa egitea egokitu da eta garraio gastua ezinbestean igo zaigu.

Erabaki hauen ondorioz eta guztion laguntzari esker Alkizako Eskolak bizirik eta indartsu lanean jarraitzen du, matrikulazioa nabarmenki handituz eta herriari bizia eskainiz. Tartean dago urtero udalak eskolari ematen dion laguntza anitza ere (lokalen erabilera, elkarlanerako prestutasuna, diru-laguntza,...)

Bestalde, Alkiza bezalako beste bi herri txikietako eskolen elkarlana indartzen jarraitzeko aurreko ikasturtean hasitako PROIEKTUarekin jarraitzen dugu, Aduna eta Berrobirekin alegia, eta hiru eskolak PROIEKTU INTERESKOLARRAK egiten ditugu. Hiruhilabeteko bakoitzean gai bat adostu lanerako eta elkarren arteko ideia trukaketa egiten dugu, formazioa ere hiru eskolek batera eginez eta ikasle guztiek gai berberaren inguruan aritzeak aukera berriak ireki dizkigu euren arteko harremanak sustatzeko. Ikasturte osoan "LEONARDO DA VINCI" izenburua duen proiektuaren inguruan ari gara, hiruhileko bakoitzean testu mota desberdin bat landuz; pertsonai esanguratsu honek bere bizitzan jorratu zituen arlo ezberdinak ikasleekin praktikara eramanez (giza gorputza, makinak eta mugimendua, artea, pintura, eskultura...).

Bestalde, ikasleen arteko gatazkei aurre egin nahian, oraingo ikasturtean zenbait proiektu berriak onartu ditugu eta martxan jarri jadanik:

- *ATARI gabinete psikopedagogikoko psikologo bat eskolara etortzen zaigu, hiruhileko bakoitzean bi aldiz, eta kezkatzen gaituzten umeei buruzko aholkularitza lana eskeintzen digu zuzenean irakasleoi. Gure informazioa jaso ondoren, pautak konkretuak ematen dizkigularik.*
- *BAIKARA, Gipuzkoako Ikasleen eta Gurasoen Federazioak, ikasleei zuzendutako formazio-tailerrak eskainiko dizkigu. Ondoren, bai gurasoei eta bai irakasleoi bertan ikusita ikusitakoaren azterlana ezagutaraziko digutelarik.*
- *GORPUTZALDIAK proiektuan sartu gara: dantza eta musikaren bidez emozioak bideratzeko proiektua. Irakasleok formakuntza jaso ondoren, ikasleekin gauzatzen dugularik.*



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Guzti honek suposatzen digun gastuez gain, urteroko ohikoak ditugun ekintzak finantzatzeko erabiliko dugu Udalak eskolari ematen dion laguntza. Jarraian doakizue adibide batzuk:

- *Barnetegiko egonaldiak, otorduak, ekintzak... (aurten Gasteizen beste ikastetxeekin batera).*
- *Igeriketa ikastaroa (aurten bai).*
- *Egun osoko irteerak: Txiki-park, surf,...*
- *Proiektuen arabera sortzen diren ekintzak (beste eskolekin batera) Mirandaora bisita, Zientzia Museora, Donostiko Belodromora,..*
- *Eta Urteko Planean aurreikusita dauden beste ekintzak.*

Eskolek herri txikien biziraupenean duten garrantziaz geroz eta jabeago garelako esango genuke eta hori udalaren aldetik ere sumatu izan dugu urtero. Aurten ere zuengana jotzen dugu, ahal duzuen neurrian, Udalak ere Eskolari diru-ekarpena egin diezaion eskatuz.

Gure eskaera hausnartuko duzuelakoan, eta nahi izanez gero, 2016 ekitaldiko gastu-sarreraren agiriak ikus ditzakezuelarik, erantzunaren zain geratzen gara.

Alkizako Herri eskolako komunitateak”

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Alkizako Herri eskolari 1.000,00 eurotako diru-laguntza ematea, burutu behar dituzten ekintzak finantzatzen laguntzeko.

BIGARRENA.-1.000,00eurotako gastua onestea.

HIRUGARRENA.- Alkizako Herri eskolari jakinaraztea, Udalak emandako diru-laguntza zuritu beharko duela, Udaletxe honetan izan dituen gastuen berri emanaz.

LAUGARRENA.- Erabaki hauen berri Alkizako Herri Eskolari jakinaraztea.

SEIGARREN PUNTUA

BELAKO PUBLIZITATE ETA KOMUNIKAZIOAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik Belako publizitatea eta komunikazioak eginiko eskaera, non 2016 urterako aurrekontuan Txantxangorri aldizkariari diru-laguntza moduan harpidetza eskaera kontutan hartzea eskatzen duten.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Alkizako Udala, 2016 urtean, Txantxangorri aldizkariaren harpidetza egitea.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri Belako publizitatea eta komunikazioari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

J.A.G. JAUNAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Udalbatza honek, aho batez, adosten dute gaia mahai gainean uztea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

TOLOSALDEKO ATARIAK AURKEZTURIKO 2015eko EKITALDIKO MEMORIAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.-k aurkezturiko 2015eko ekitaldiko memoria eta aurrekontu kudeatua, Talde horrek eta Alkizako Udalak hitzartua duten 2015eko Lankidetzaren hitzarmenean adierazten den modura.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M. -k aurkezturiko 2015 ekitaldiko memoria eta aurrekontu kudeatua onestea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

TOLOSALDEA GARATZENEGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HAU DA, 2016 URTEARI DAGOKION EKARPENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 2016ko otsailaren 10eko datuz, Tolosaldea Garatzen-ek aurkezturiko idatzia, non Alkizako Udalarari 2016 urteari dagokion ekarpena 3.750,00 eurotako dela jakitera ematen du, lehenengo ekarpena, 1.875,00



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

eurotako burutzeko eskatzen duelarik. Bigarrenko ekarpena irailaren 30erako egin beharko delarik.

Gaia eztabaidatu ondoren, bertaratuek

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Tolosaldea Garatzen-i 2016 urteko ekitaldiari dagokion ekarpena onestea, 3.750,00 eurotako delarik, eta lehenengo ekarpena burutzea, 1.875,00 eurotako kopuruan. Bigarrenko ekarpena irailaren 30erako egingo delarik.

BIGARRENA.- 2016 urteko udal aurrekontuan kreditu nahikoa aurreikustea

HAMARGARREN PUNTUA

TOLOSAKO HILTEGI MANKOMUNATUARI 2016ko EKARPENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Hiltegi Mankomunitateak irailaren 23an egindako bilkuran, aho batez erabaki zuten, Mankomunitateko kide diren Udalek erakundearen langilearen soldata ordaindu ahal izateko, 2016 urtean 36.000 eurotako ekarpena egin behar zutela. Alkizako Udalari 135,00 euro suposatzen diolarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Hiltegi Mankomunitateari 2016 urteari dagokion ekarpena onestea eta burutzea, 135,00 euroko diru kopuruan.

BIGARRENA: 135,00 euroko gastua onestea.

HAMAİKAGARREN PUNTUA

EUDEL-EUSKADIKO UDALEN ELKARTEAK EGINIKO GOMENDIOARI ATXIKITZEA, UDALHITZ NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN INGURUAN, HALA BADA

Ikusirik, Eudel-Euskadiko udalen Elkarteak Udalhitz Negoziazio kolektiboari buruz, 2015eko abenduaren 10ean udalei ondorengo neurriak onartzeko gomendioa egin zutela:

1.-2015ean %0,6ko funtsa zuzkitzea modernizaziorako eta produktibitateko.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

- 2.-Langile publikoek 2012ko aparteko ordainsari gehigarria berreskuratzea.
- 3.-2016ko ekitaldian ordainsaria % 1 gehitzea.

Ikusirik, gomendio hauetatik at, "irailaren 11ko, 10/2015 Errege Dekretu Legegileak, non enplegu publikoetako eta ekonomiaren sustapenerako hainbat neurri hartzen diren", galdutako, opor egunak, norberaren gauzetarako egunak eta aintzintasun egunak berreskuratzen diren.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Udalhitz negoziazio kolektiboari buruz, Eudel-Euskadiko udalen elkarteak 2015eko abenduaren 10ean emandako gomendioari atxikitzea.

BIGARRENA: Irailaren 11ko, 10/2015 Errege Dekretu Legegilearen babesean, non enplegu publikoetako eta ekonomiaren sustapenerako hainbat neurri hartzen diren, udaletxeko langileak galdutako opor egunak, norberaren gauzetarako egunak eta aintzintasun egunak berreskuratzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Eudel-eri ematea.

HAMABIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO UDALA ETA AIZTONDO KLASIKOA BATZORDEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN ONESPENA, URTERO EGITEN DEN TXIRRINDULARITZA KLASIKOAREN ARAUAK FINKATZEKO

Ikusirik Aiztondo Klasiko batzordeak igorritako hitzarmenaren zirriborroa, Adunako Udalak, Alkizako Udalak, Larraulgo Udalak, Asteasuko Udalak, Villabonako Udalak eta Zizurkilgo Udalak onartu dezaten, non Aiztondo Eskualdean afizionatu mailako goi mailako txirrindularitza proba elkar lanean antolatzea arautzen den.

Ikusirik aipaturiko hitzarmena sei urteetarako iraupena izango duela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Adunako Udalak, Alkizako Udalak, Larraulgo Udalak, Asteasuko Udalak, Villabonako Udalak, Zizurkilgo Udalak eta Aiztondo Klasiko



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

batzordearen arteko hitzarmena onestea, non Aiztondo eskualdean afizionatu mailako goi mailako txirrindularitza proba elkar lanean antolatuko den.

BIGARRENA: Jon Umerez Urrezola Alkate-Lehendakariari, ahalmena ematea aipaturiko hitzarmena sinatu dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Aiztondo Klasika batzordeari ematea.

HAMAIRUGARREN PUNTUA

XIII. AIZTONDO KLASIKOA"PATXI ALKORTA MEMORIALA"ri 2016 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik Aiztondo Klasikako Batzordeak, XIII. Aiztondo Klasikoaren "Patxi Alkorta memorialaren" aurrekontua bidali duela, guztira 19.000 eurotako dena, datorren martxoaren 6an ospatuko dena. Alkizako Udalarari 1.926,41 eurotako ekarpena egin dezan eskaera egiten duelarik.

Ikusirik 2016ko Udal aurrekontuetako 481.340.00.03 partidari aurrekontu nahikoa aurrirakosten dela gastu honi aurre egiteko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Aiztondo Klasikako Batzordeak aurkeztu duen aurrekontua onartzea eta 1.926,41 eurotako ekarpena burutzea.

BIGARRENA.- 1.926,41 eurotako gastua onestea.

HAMALUGARREN PUNTUA

BESTE BATZUK

14.1. ALKIZAKO BALDOSAS JARRI S.L. PABILOIKO ZENBAIT ERAIKUNTZA ELEMENTU KENTZEKO BAIMENA ESKAERA, BANCO POPULAR ESPAÑOL

Ikusirik Banco Popular Español-ek eginiko eskaera, non Alkizako Baldosas Jarri S.L. Pabiloiko zenbait eraikuntza elementu kentzeko baimena eskaera egiten duen. Horretarako Laura de la Fuente Martínez arquitecto teknikoak eginiko exekuzioko proiektua aurkezten du, COATG-en bisatua izan dena.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik, 2016ko otsailaren 26an, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean dioena:

“ALKIZAKO BALDOSAS JARRI S.L. PABILOIKO ZENBAIT ERAIKUNTZA ELEMENTU KENTZEKO ESKAERARI TXOSTENA

El Banco Popular Español, solicita licencia de obras para la retirada de elementos constructivos y desmontaje parcial del pabellón situado en Azaldegi bailara 16 de Alkiza, para lo que presenta proyecto visado por el COAATG. Analizada la documentación anterior, señalo lo siguiente:

El proyecto de ejecución firmado por la arquitecto técnico Laura de la Fuente Martínez (All Global 2010, S.L.), tiene por finalidad la retirada y desmontaje parcial de los elementos que se encuentran en mal estado o presenten riesgo de caída en los pabellones situados en Azaldegi bailara 16 (antes “Baldosas Jarri”, actualmente sin actividad), donde los escombros procedentes del derribo (a excepción del metal y el fibrocemento) se evacuarán a una zona cubierta con solera en el interior de la parcela.

El fibrocemento, al ser un material peligroso, según proyecto, será manipulado por empresa autorizada según Real Decreto 396/2006.

El documento consta de memoria, anexo fotográfico, pliego de condiciones, presupuesto, planos, estudio de gestión de residuos y estudio básico de seguridad y salud.

El presupuesto de los trabajos a realizar es 9.989,41€.

La parcela donde se sitúa el pabellón tiene una categoría de suelo no urbanizable sin vocación de uso definido de Alkiza.

Al estar junto al arroyo Arraia, la categoría de la franja de 15m de anchura situada al lado del cauce difiere y se trataría como suelo no urbanizable de protección de aguas superficiales.

Art. 1.5. Suelo no Urbanizable Sin Vocación de Uso Definido.

Constituyen esta categoría de suelo no urbanizable todos aquellos terrenos del término municipal que no están urbanizados, no disponen de una protección definida y que han sido transformados secularmente por la actividad del hombre para la agricultura y la ganadería. Se toleran y prohíben los siguientes usos y actividades.

a) Se propicia, en esta categoría de suelo no urbanizable, la conservación y mejora ambiental.

b) Se admite, en esta categoría de suelo no urbanizable, el recreo extensivo e intensivo, las actividades cinegéticas y piscícolas, la agricultura, los invernaderos, la ganadería extensiva e intensiva, las serrerías sin producción de segundos



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

transformados de la madera, las industrias agrarias únicamente vinculadas a las explotaciones, la actividad forestal, vías de transporte, líneas de infraestructuras de tendido aéreo y subterráneas, instalaciones técnicas de servicios y los edificios de utilidad pública e interés social, la vivienda vinculada a explotación agropecuaria, la construcción de "txabolas" únicamente vinculada a edificación de explotación, caserío o vivienda existente en suelo no urbanizable.

c) Se prohíbe en esta categoría de suelo no urbanizable, las escombreras y vertederos, las explotaciones porcinas, las industrias agrarias no vinculadas a explotaciones agroganaderas, la vivienda aislada no vinculada a explotación agropecuaria.

"Art.1.4. Suelo No Urbanizable de Protección de Aguas Superficiales.

*Esta categoría de suelo no urbanizable está compuesta por sendas franjas de 15m de anchura, situadas a ambos lados respectivamente de los cauces de los arroyos Arraia y Alkiza, medida desde la línea de deslínde, **donde está prohibida la alteración del terreno natural, edificaciones, instalaciones o construcciones de cualquier tipo, tanto fijas como desmontables, explanaciones, movimientos de tierras, las escombreras y los vertederos.***

En cualquier caso, se deberá cumplir con las determinaciones contenidas en el Decreto 415/1998, de 22 de noviembre, del Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente del Gobierno Vasco, por el que se aprueba el Plan Territorial Sectorial de Ordenación de Márgenes de Ríos y Arroyos de la Comunidad Autónoma del País Vasco (vertiente cantábrica) y Real Decreto Legislativo 1/2001, de 20 de julio por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Aguas.

De forma complementaria a las limitaciones establecidas, en un banda de 100 metros de anchura a cada lado de los cauces, tan solo se permitirán aquellas construcciones, actividades y usos del suelo propios del suelo no urbanizable.

Con carácter general, los márgenes de los arroyos se consideran como zona de vegetación bien conservada donde cualquier intervención que pueda alterar sus condiciones naturales deberá garantizar la conservación de las características del medio físico.

En los cauces de los arroyos no se realizarán, alteraciones, coberturas ni rectificaciones artificiales, salvo las intervenciones que para la prevención de inundaciones o para la construcción de obras públicas pudiera, en su caso, disponer la correspondiente autoridad hidráulica competente debiéndose acompañar de un estudio para la corrección de las posibles afecciones causadas.

En las cabeceras de cuenca y para posibilitar en su caso la creación de explanaciones o vertederos de inertes se podrá permitir la rectificación de arroyos de cuenca afluente inferior a 3 Km² en las condiciones que establezca autoridad hidráulico de la totalidad de la cuenca afluente, así como un proyecto de medidas correctoras.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

*La parcela está incluida en el **inventario de emplazamientos potencialmente contaminados** según Decreto 165/2008 de 30 de junio.*

Según el artículo 17 de la Ley 1/5005, de 4 de febrero, para la prevención y corrección de la contaminación de suelo, en caso de ampliación, movimientos de tierra, cese o cambio de calificación será necesaria la declaración de la calidad del suelo.

*Según el artículo 28 de la Ley de Suelo 2/2006, de usos y actividades, las obras de construcción, edificación e instalación en suelo no urbanizable deberán adoptar las medidas adecuadas a la preservación, mantenimiento y, en su caso, **la restauración de las condiciones ambientales de los terrenos correspondientes y de su entorno inmediato.***

Siendo esto así, se informa favorablemente la solicitud presentada siempre y cuando los escombros generados se sitúen a cubierto y sobre solera dentro del pabellón y la franja de protección de 15m junto al cauce del arroyo Arraia quede libre de cualquier instalación o edificación y se proceda a su restauración y recuperación ambiental.

En base al artículo 5 del Decreto 112/2012 de Gestión de Residuos, se deberá depositar un aval o una fianza como garantía de gestión de Residuos de Construcción y Demolición por un importe de **507,25 €.*

Al finalizar la obra, además del certificado de fin de obra, se presentará el Informe Final de Gestión de Residuos de Construcción y Demolición de acuerdo al modelo definido en el anexo III del Decreto 112/2012, junto con la relación completa de las copias de los Documentos de Control y Seguimiento, u otros acreditativos, generados en la gestión de RCD-s. Los documentos DSC que se adjunten, deberán presentarse en estado completado.

**En aplicación del Real Decreto 1627/1997, por el que se establecen las disposiciones mínimas de seguridad y de salud en las obras de construcción, se deberá disponer de los organismos competentes los permisos y autorizaciones correspondientes.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Banco Popular Español-ek eginiko obra baimena onestea, hau da, Alkizako Baldosas Jarri S.L. pabiloiko zenbait eraikuntza elementu kentzeko baimena ematea, Laura de la Fuente Martínez arkitekta teknikoak eginiko proiektuaren arabera eta Eba Erkizia Brion Udal aholkulari teknikoak eginiko



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

txostenean jasotako baldintzak betetzen badira.

BIGARRENGOA.-Banco Popular Español-i jakitera ematea 507,25eurotako fidantza bat jarri beharko duela Udaletxe honetan, Ekainaren 26ko 112/2010 eraikuntza eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko dekretuaren 5º artikulua araberak, hirigintza-lizentziak emateko baldintza gisa, obra handietan sortutako eraikuntza eta eraispen-hondakinak behar bezala kudeatuko direla bermatzeko.

HIRUGARRENGOA.-Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

LAUGARRENGOA.- Erabaki honen berri interesdunari ematea.

14.2. ALKIZAKO ZUMITZA ETA BASOZABAL BASERRIKO LURRETAN BETELANA ZABALTZEKO BAIMENA ESKAERA, EXCAVACIONES PERU S.L.

Ikusirik, Excavaciones y construcciones Peru S.L. enpresak, eginiko eskaera, non Alkizako Zumitza eta Basozabal baserriko lurretan betelana zabaltzeko baimena eskaera egiten duen, horretarako Salaberria ingeniartzako Miguel eta Amaia Salberria bide-ingeniariak sinatutako proiektu bisatua aurkezten dute.

Ikusirik Udal Aholkulari teknikoak 2016ko otsailaren 26an eginiko txostenean dioena:

“ALKIZAKO ZUMITZA ETA BASOZABAL BASERRIKO LURRETAN BETELANA ZABALTZEKO BAIMEN ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA

F.P.G. jaunak, EXCAVACIONES PERU S.L-ren izenean, Zumitza berri inguruetan dagoen betelana zabaltzeko baimena eskatzen du, Salaberria ingeniartzako Miguel eta Amaia Salaberria bide-ingeniariak zinatutako proiektu bisatua aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:**

Aurkezten den gauzatzeko proiektuan Zumitza eta Basozabal baserriko Sakamidra izeneneko parajeen baimendutako 138.000m³-ko betelana **456.307m³** arte zabaltzeko asmoa azaltzen da.

Proiektuan, 49/2009 dekretuaren V eranskinak betelanentzat eskatzen duen dokumentazio guziaz azaltzen da. Proiektuari, HAGINPE S.L ingurugiroko aholkularitza enpresak egindako ingurumenaren integrazio dokumentua atxikitzen zaio.

Betelanaren arduradun teknikoa, Felix Perurena Goizueta da. Bera izango da betelanaren funtzionamendu egokiaren erantzule.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Betelana osatzeko materiala, epe motz batean, Hernialde-Zizurkil tarteko AHT lanetatik eta N-1eko PK 437+50 puntuan gertatutako lur-jausitik eratorria izango da.

Lanen iraupena gehienez 10 urtetakoa izango dela aurreikusten dute proiektuko memorian. Aldiz, lursailen jabeekin zinatua duten kontratuaren epea 5 urtekoa da (baimena jasotzen den egunetik aurrera).

Lan hauen gauzatze materialeko aurrekontua 383.173,79€-koa da.

Sakamidra inguruko lurak Alkizako ingurumen hobekuntzarako eta erabilera berezirik ez duen lur ez-hiritargarrian kokaturik daude.

2006-ko azaroaren 6-ean Gipuzkoako boletinean argitaratutako "Alkizako Hiri Antolaketako arauen aldaketa lurzoru hiritarrezinaren araudiko" lurra betetzea eta egokitzei buruzko 1.11 artikulua arabera, lurren betelanak, Eusko Jaurlaritzak ezarritako dekretuaren arabera zilegituko dira.

Gaurregun indarrean dagoen dekretua, "112/2012 eraikuntza eta eraipen hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen dekretuak" aldatutako "49/2009 dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea erauzten duena" da.

Aldatutako 26º artikulua honela dio (Betelanak baimentzeko araubidea)

1.–Urte batetik gora luzatzen diren 500.000 m³ baino edukiera handiagoko lurrarekin eta arrorekin egindako betelanez eta, orobat, haiek aldatzeko edo handitzeko lanek tokiko udalaren jarduera sailkaturako udal-lizentzia beharko dute.

500.000 m³ baino edukiera txikiagoko betelanak egiteko, jarduera egingo den tokiko udalari, aldeztatik, jarduera sailkatua egingo dela jakinarazi behar zaio.

Lehendik dauden betelanak aldatu edo handitu nahi direnean, ingurumen gaitan eskumena duen organoak betelanaren hasierako proiektuari buruz duen informazio guztia igorriko dio dagokion udalari, hark aldeztatik horretarako eskaera aurkeztu behar du.

2.– Jarduera sailkatuko lizentzia behar duen betelan baten sustatzaile fisiko edo juridikoak lizentzia eskatzen duenean, eskaera-orriarekin batera proiektu tekniko bat aurkeztu behar du, proiektua egin duenaren elkargo profesionalak ikus-onesia eta dekretu honen V. eranskinak ezarritako dokumentazioa izango duena, hargatik eragotzi gabe jarduera sailkatuen erregimena ezartzen duen araudian ezartzen dena.

3.– Kasu guztietan, bai jarduera sailkaturako lizentziaren eskaerarekin batera, bai udal-agintaritzari egin beharreko jarduera sailkatuaren aurretiko jakinarazpenarekin batera, ur gaitan eta biodibertsitatea babesteko gaitan eskumena duten organoek aldeztatik aurretik emandako nahitaezko txosten loteslea aurkeztu behar da, gehienez 2 hilabeteko epean.

Derrigorrezkoak diren ur gaitan eta biodibertsitatea babesteko gaitan eskumena duten organoek **aldeko txostena** luzatu dute.

Aurrekoa ikusirik, eta betelanaren zabalpena baimendu ahal izateko ondorengo baldintzak bete beharko dira;



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

- 500.000m³-ko baina gutxiagoko betelan bat izanik, jarduera sailkatuaren aurretiazko komunikazioaren erregimenean aurkitzen gara. Beraz, betelanaren zabalpenaren jarduerarekin hasi baino lehen, **teknikari gaituak emandako ziurtagiria aurkeztu behar da udaletxean.**
- Alkizako udaletxeko Ingurumen teknikariak, Zumitza-Berri baserriaren ondoko soberakinen biltegiaren betelanaren handitze proiektuari egindako txostenean eskatzen dituen neurriak bete beharko dira.”

Ikusirik, 2016ko otsailaren 4ean Udaleko Ingurumen Teknikariak eginiko txostenean dioena:

“ **GAIA:** Alkizako Zumitza-Berri baserriaren ondoko soberakinen biltegiaren betelanaren handitze proiektua.

TXOSTENA:

2015. urteko urrian, Excavaciones Peru S.L.k aurretik zuen Sakamidran dagoen betelanaren handitze proiektua aurkeztu zuen.

Dokumentua aztertu ondoren, udalak, beste neurri batzuen artean, landare espezie inbaditzaileak saihesteko neurriak hartu beharko dituztela helarazi zitzaion, aurretik, ingurumen teknikariak IHOBEn kontsulta egin ondoren. Ondorengoa eskatu zitzaion, adieraziz, azken puntua, ezinezkoa zela proiektu honetarako:

- *Eskatu obraren arduradunari ziurtagiri bat esanez nola espezie inbaditzaileak ez den identifikatu lurzorua jatorrizko kokapenean ezta bere inguru hurbileko lursailetan. Hau edozein kasutan eskatu ahal dute.*
- *Obrarako erabiliko den material guztia garbitu beharko da (tutu malgu edo mangera batekin ureztatuz), bereziki ere kamioien gurgilak eta hondeatzeko makinak lekuz aldatzen direnean. Batzutan gurgilek edo tresnek beste obretatik ekartzen dituzte inbaditzaileen propaguluak (haziak, sustraiak, zatiak...). Beraz, lortu beharko dute obraren arduradunek hau ere betetzea. Azken finean, prebentzio-neurri bat da.*
- *Lurtzoria koarentenan jarri daiteke. Ez dakit zer nolako lur bolumena den eta lur horren hurrengo erabilera zein izan daitekeen. Baina inbaditzaileen arriskua ia guztiz desagertarazteko, ilunpetan behar da lurzoru hori 2 urtez. Metodoa, lurren bolumenaren araberakoa da: txikia izanik, lurra zaborrekin erabiltzen diren plastikozko poltsa beltzetan gordetzen da. Bolumen handiekin, metalezko kontenedoreen barruan sartzen da. Hori bai, beti ilunpetan. Bestela ez du ezertarako balio. Metodo hau gomendatuko nuke benetako arriskua balego, hau da, lur horiek inbaditzaileak egon diren lursail batetik atera badira (batez ere, Fallopia japonica edota Buddleja davidiaren kasuan). Baina gutxienez urte bi pasatu behar dira bermatzeko ez dela gelditu erresistentziadun formarik barruan, beraz, lur horiek ezin dira berehala erabili.*



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

2016ko urtarrilean, proiektua aurkeztu zuten Perukoek, eta behin hau aztertu ondoren, ondorengoa ikusi da.

- Batetik Excavaciones Peru S.L.k landare espezie inbaditzaileen gainean, aurkeztutako neurri zuzentzaileen artean, landare espezie inbaditzaileak azalduaz gero, GFA-ren protokoloa aplikatuko dutela adierazten da.
- Gizpukoako Foru Aldundian kontsulta egin ondoren, proiektuan adierazitako neurri horiek nahikoa ez direla ondorioztatzen du ingurumen teknikariak eta hori konpontzeko, ondorengo neurriak hartzeko eskatzen dio Excavaciones Peru S.L.ri:
 - o Betelanerako ekarritako lurren etengabeko erlazioa eramatea.
 - o Proiektuaren ingurumen zaintza programan, landareen babes eta leheneratze kontrolerako atalean, 9.2.6., landare inbaditzaileen kontrolerako helburuak betelanaren lanen garaian hileroko ikuskaritzak egin eta landare inbaditzaileak aurkitu ezker, kentzeko lanak Gizpukoako Foru Aldundiko Protokoloa jarraituz egingo dela ziurtatzeaz gain, betelanaren lanak bukatu ondoren, gutxienez hurrengo 10 urtetako epean, landare espezie inbaditzaileen ikuskaritza egiten jarraitzea eta, landare inbaditzaileak aurkitu ezker, kentzeko lanak Gizpukoako Foru Aldundiko Protokoloa jarraituz bere gain hartzea.”

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Excavaciones y Construciones Peru S.L. enpresak eginiko eskaera onestu, hau da, Alkizako Zumitza eta Basozabal baserriko lurretan betelana zabaltzeko baimena eskaera onestu, Salaberria ingeniariaren Miguel eta Amaia Salaberria bide-ingeniariak eginiko proiektuen arabera eta betiere, Udal Aholkulari Teknikoak eta Ingurumen teknikariak eginiko txostenetan jasotzen diren baldintza guztiak betetzen badira.

BIGARRENA: Baimen honek 5 urteko balioa izango du.

HIRUGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

LAUGARRENA: Excavaciones y Construciones Peru S.L.-ri jakinarazi 1.000 eurotako isuna ordaindu behar duela Alkizako Udaletxean, lanak hasi baino lehen.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BOSTGARRENA: "Ampliación de relleno para deposito de sobrantes junto al Caserio Zumitza-Berri, en el Termino municipal de Alkiza "-ko 128.000,00 eurotako abala Udaletxe honetan aurkeztea, non ingurugiroko integrazioko eranskinean azaltzen diren neurriak bermatuko diren

SEIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

HAMABOSTGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**

15.1.EUROPAR UDALEN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: MARTXOAREN 8a EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Eudelek aurkezturiko ondorengo adierazpen instituzionala azaltzen da, non ondorengo dioen:

"Udalerrri eta Eskualdeetako Gobernuek bat egin dute Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunaren alde, Europan eta Munduan

Europako Udalerrri eta Eskualdeen Kontseiluko (CCRE-CEMR) Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasuna Tokiko Bizitzan Sustatzeko Batzorde Iraunkorrek adierazi du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna funtsezko eskubidea eta oinarritzko balioa dela demokraziarentzat. Tokiko eta eskualdeetako gobernuek herritarrengandik gertuen dauden esferak dira, eta, hortaz, esku-hartzerako maila garrantzitsuak dira oraindik ere dirauten desberdintasunei aurre egiteko eta emakumeen eskubideak Europan eta mundu osoan sustatzeko.

Emakumeen Nazioarteko Egun honetan, 2016ko martxoaren 8an, tokiko eta eskualdeetako gobernuen ordezkariak helburu hauen inguruan elkartu dira:

- Gogoratzea demokrazia ezin eraiki daitekeela emakumerik gabe, eta, horrenbestez, beharrezkoak diren neurriak hartu behar direla, maila guztietan –tokikoa, eskualdekoa, estatukoa eta Europakoa-, emakumeek eta gizonek parte-hartze berdina izan dezaten erabakiak hartzeko prozesuetan;
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna gure balioen eta europar gizartearen oinarritzko elementua dela bermatu dezatela eskatzea estatue-



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

tako gobernuei eta Europako instituzioei; beraz, elementu horrek agenda politikoaren erdigunean egon behar du, eta politika eta lege garrantzitsu guztietan txertatu behar da;

- Berdintasunaren aldeko konpromiso formal bat hartu dezatela eskatzea Europako hiri eta eskualde guztiei, CCRE-CEMRk 2006an plazaratu eta dagoeneko 1.500 hiri eta eskualdek baino gehiagok sinatu duten Tokiko Bizitzan Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasuna Lortzeko Europako Gutuna sinatzearen bidez;
- Berdintasuna eskualde eta toki mailan sustatzeko neurri politiko konkre- tuak hartu ditzatela eskatzea Gutunaren sinatzaileei, CCRE-CEMRk Be- hatoki¹ honen bidez eskura jartzen dituen tresnak erabiliz, estatu bakoit- zean tokiko eta eskualdeetako gobernuei ematen zaizkien botereen ara- bera; eta horren inplementaziorako beharrezkoak diren finantza eta giza baliabideak eskaini ditzatela.
- Emakumeek XXI. mendean pairatzen jarraitzen duten indarkeria sala- tzea: bizitza pribatuan zein publikoan emakumeen aurka zuzentzen den indarkeria forma guztiei aurre egin behar zaie eta ezabatu egin behar dira, honako forma hauek barne sartuta: emakumeen trafikoa, sexu-es- plotazioa, etxeko indarkeria eta giza eskubideak urratzen dituzten gaine- rako ekintza guztiak;
- Genero-indarkeria prebenitzeko eta horren biktimak babesteko eta la- guntzeko politika eta lege bateratuak sortu ditzatela eskatzea estatue- tako gobernuei eta EBko instituzioei. Emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta haren aurka borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena (Istanbulgo Hitzarmena) berretsi de- zatela eskatzea gobernu nazionalei;
- Kontuan hartzea gerra eta jazarpenetik ihes eginda gure hiri eta udale- rrietara iristen diren errefuxiatuen artean dauden emakume eta haurren behar espezifikoak; beharrezko harrera eta arreta ziurtatzea, eta era guztietako indarkeria eta diskriminazioa eragozteak;
- Maila globalean elkarlanean aritzeko borondatea erakutsi dezatela, Na- zio Batuen Erakundearen 2030eko Agendaren 5 Helburuak lortzeari be- gira, horrek xedetzat hartzen baitu emakumeen aurkako diskriminazio forma guztiak ezabatzea.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, EUDEL-ek aurkezturiko adierazpen instituzionala bere osotasunean onesten du.

¹Bisitatu www.charter-equality.eu



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 21.30 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.